

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko ekainaren 28a. IX. urtea. 2.375. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Eraberritze lanekin Tolosako Berazubi estadioa jendartera ireki nahi dute

Berritze obrak hainbat alditan banatuta egingo dituzte; lehenik eta behin harmailak berrituko dituzte eta bigarren zatian pilotalekua dagoen tokian ariko dira

Usabal kiroldegia osagarri izango da gunea; neguan ere erabili ahal izateko hainbat gune estaliko dituzte, gimnasia egiteko gelak eta padel pistak, besteak beste 04




Ibai Iriarte, Peio Etxabe, Iñaki Arratibel eta Asier Bakaikoa, atzo, azalpenak ematen. E.MAZ

## Lantokietan ere euskara zabaltzeko

Galtzaundi euskara taldeak eta Irura zein Anoetako udalek bi herrietako hainbat enpresak hartutako jarrera goraiatu dute 05



Galtzaundiko eta Anoeta zein Irurako udaletako ordezkariek. A.MAZ



### Langostinok hamargarren urtez ospatuko du Ibarako Moto Festa

Larunbatean eta igandean motorraren inguruko jarduerak izango dira herrian; Andre Colombok ikuskizuna eskainiko du 07

### Sexu Askatasunaren Aldeko Eguna ospatuko dute, gaur, Leitzan

'Ogiyik karri etzun semia' antzezlanak ikusi ahal izango da 20:00etan, eta ondoren, afaria egingo dute Torrean 06

### Lasa eta Ugartemendia alebinak, HITZA Txapelketako lehen finalistak

Hurrengo pilota partidak Asteasu, Altzo, Albiztur eta Bidegoianen izango dira bihar, 18:30etik aurrera 04



Pasa den ekainaren 21ean egin zuen Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak, agerraldia. HITZA

# Eskualdeko herritarren eskubideak defendatuko ditu TOPAk, larunbatean

Eskualdean nahiz Espainian ematen ari den osasun publikoaren pribatizazioa salatu du koordinakundeak

## Itzea Urkizu

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) koordinakundeak, eskualde mailako manifestazioa antolatu du larunbat honetarako, «eskualdeko herritarren eskubideen aurka doazen neurriei ezezkia adierazteko». Mobilizazioa etzi izango da, 12:00etan, Triangulua plazatik abiatuta.

Azken urte betean egiten ari diren bide beretik, TOPAk osasun zerbitzuen pribatizazioa salatu du berriro ere. Eskualdera begira jarritz, lehenik, «espezialitateen

ambulatorioa deseginez» hasi zirela salatu dute, eta «Asuncion klinikarekin egindako hitzarmenarekin jarraitu» dutela gaineratu dute bozeramaleek.

Modu honetara, Asuncion klinikako eta Gipuzkoako gainerako eskualdeko ospitale publikoetako langileria konparatu, eta Asuncionen, gaur egun, langileen %53a falta dela salatu dute. Honi, azken hilabeteotan herrita-

## ↓ Datua

**%53**

■ TOPAk Gipuzkoako ospitale publikoetako langileria eta Asuncion klinikarena parez jarri ditu, eta %53ko gabezia dagoela salatu du.

rrengangik jasotako 600 kekek eta «hitzarmena sinatuz gerotzik luzatzen joan diren itxaron zereendak» gehitu dizkiote: «Kardiologia eta traumatologiako lehen kontsulta baterako, hiru hila-bete itxaron behar da».

Modu berean, Mariano Raxoiren gobernuak hartutako neurrien aurkako aldarriak ere izan dituzte hizpide: «PPren gobernuak osasun sistemaren aurkako neurri berriak inposatzen dizkigu ostiralero». Besteak beste, unibertsaltasunaren, berdintasunaren, eskuragarritasunaren eta birbanaketaren aurkako neurriak hartu izana salatu dute.

Horrela beraz, «kudeaketa publikoko eskualde ospitale publikoak, nahiz espezialitateen ambulatorioa erabat hornitzea eskatzen», TOPAk eskualdeko herritar guztiak gonbidatu ditu manifestazioan parte hartzera.

## ↓ Manifestaziorako atxikimenduak

- Amarozko auzo elkarteko zuzendaritza
- Aralar
- Bidasoako 15M asanblada
- Tolosaldeko 15M asanblada
- Berdinbide
- Beti Gazteak erretiratu eta pentsiodunen elkartea
- Bilgune Feminista
- Bonberenea
- CCOO sindikatua
- CNT-AIT Gipuzkoa
- sindikatuak
- Ekologistak Martxan
- ELA sindikatua
- Eusko Alkartasuna (Tolosa)
- Galtzaundi Euskara Taldea
- Hariitze erretiratu eta pentsiodunen elkartea
- Iturriza Tolosako Helduen Elkartea
- LAB sindikatua
- LAB pentsiodunak
- OSB (Opción Sindical Base)
- Otsabio
- Sanblasipiko gazte asanblada
- Tolosaldeko Bildu
- Tolosaldeko ezker abertzalea
- Tolosaldeko Zero Zabor plataforma
- Zahartzaro duinaren aldeko plataforma

## Ate irekien eguna antolatu du Ereite ekarteak San Esteban auzoan

Askaria, munduko musika eta elkarteko bazkide egiteko aukera izango da elkartearen egoitzan

## I. Urkizu

Ereite Elkarte Kulturantzak ate irekien jardunaldia antolatu du larunbat honetarako, ekainak 30, 18:00etatik aurrera. Tolosako San Esteban auzoan duten egoitzan izango da jaia.

2005. urtean sortu zen Ereite elkartea, kultura elkartruke elkarte moduan lan egiteko asmoz. Azken urteotan taldea eta beren jarduerak geldirik egon diren arren, elkartea bera eta beren helburuak berriro martxan jartzeko asmoa dutela nabarmendu dute arduradunek.

Besteak beste, kulturantzazuzenaren garrantzia nabarmendu nahi izan dute ate irekien jardunaldiko antolatzaileek, beru «guztion onura» dela esanez: «Ereite Elkarteak aniztasuna bultzatzen du, nagusiki elkarren arteko errespetua jorratuz».

Horrela beraz, atzeritar nahiz euskaldunak gonbidatu nahi dituzte, antolatzen dituzten afarietara, txangoetara, hitzaldietara, proiektioetara, gastronomia nahiz dantza jailetara, ikastaroe-tara eta erakusketetara.

Larunbatean, beraz, 18:00etatik aurrera, San Esteban auzoko 20. zenbakian, Lanbide bulegoaren ondoan, duten lokalean, ate irekien jaia izango da, eta munduko musika entzuteko aukera izango da, besteak beste.

Bertan, elkarteko bazkide egiteko aukera ere eskainiko dute, bi argazki eta NANaren fotokopia bat eramanez gero.

Informazio gehiago eskuratzeko 685 75 05 61 telefono zenbakira dei egin daiteke, eta baita [multiculturalereite@yahoo.es](mailto:multiculturalereite@yahoo.es) helbidera idatzi ere.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## → Laburrak

### Orbelaki Gauak egitasmoan Biblues

**MUSIKA** › Orbelako Gauak egitasmoa saioa izango da gaur, 22:30ean, Orbelan; Biblues bikotea ariko da. Iker Piris tolosarra gitarrarekin ariko da, eta Alvaro Fernandez donostiarra, berriz, ahoko soinuarekin.

### Zabalik Tolosa CFko paleta txapelketako izen ematea

**KIROLA** › Tolosa CFk urtero antolatzen duen paleta txapelketan izena emateko epea zabaldu du jada. Aurten ere, Berazubi estadioko frontoian izango da txapelketa, 44. aldiz. Datorren astelehena bitarte egin ahal izango da, 656 71 92 63 nahiz 943 67 17 49 telefono-etara deituta. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du izen ematea.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Oporretarako apartamentua.** Oporretarako apartamentua alokagai, Peñiskolan. 7 pertsonentzat egokitutako etxea da. Hondartza aurrean dago. 2 balkoi, 2 igogailu, 2 igerileku, aire egokitua eta apartakalea dauka. Interesatuak deitu 696 60 25 27 telefono zenbakira.

# Epaitegien eta politikaren bideak ari dira jorrotzen Lehiberriren laguntza eskuratzeko

Madrilek hitzartutako bi milioietatik erdia ez da iritsi Lehiberri zentroa kudeatzen duen Tolosaldea Garatzenara

**Imanol Garcia Landa**

Tolosaldea Garatzenek kudeatzen duen Lehiberri zentroarentzat bi milioi euroko diru laguntza iritsi behar zen Madriletik. Erdia, milioi bat, ordea, ez da iritsi eta horren aurrean bi lanketa egiten ari dira Tolosaldea Garatzeneko kideak. «Ildo politikoaren aldetik, Lehiberriri buruzko mozioa aurkeztu dugu eskualdeko udaletan, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Gasteizko Legebiltzarrean eta Espainiako Kongresuan. Bestalde, auzitegietara jo dugu, Espainiako Gobernuak bere legea hautsi duelako, diru laguntza nominatibo bat ez duela eman», azaldu du Ibai Iriarte Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak. Gaineratu duenez, «gaiak nahiko garrantzia du bi ildo horiek jorrotzeko».

Bien bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurten 400.000 euroko diru laguntza emateko jarrrera azaldu du, eta datorren urteko aurrekontuetatik ere kopuru bat bideratzeko asmoa du. «Eskertu behar da Foru Aldundiaren inplikazioa, konturatu baita zer egoeratan uzten gintuen diru laguntza ez jasoteak. Eusko Jaurlaritzak atek itxi zizkigun», zehaztu du Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak.

«Egoera korapilatsua da», esan du Iriartek. «Diru sarrera bat aurrekustean baduzu, eta gastua eginik, diru hori jasotzen ez baduzu, gastuari aurre egin behar diozu. Beraz, Tolosaldea Garatzen eta berau osatzen duten 28 udalerririk egoera korapilatsu batera eramaten zuten».

Epaitegien bidea «duze» joango dela esan du Iriartek: «Ebazpena alde izan arren, epaiaren gauzatea ez da erraza, gobernua aldatu delako eta ministerioen osaketa ere bai. Guk garbi dugu epaitegien bideari ekin behar zitzaioela arrazoia dugulako».

Lehiberri «eskualdeak une honetan duen gabezi bati erantzuteko tresna bat» izan daitekeela uste du Iriartek. «Tolosaldeko enpresa eta tailerrentzako eta beste esparru batzuetan jarduera ekonomikoak dituzten eragileentzako bilgunea, lan egiteko lekua eta erreferentziazko toki bat izan daiteke», gaineratu du. «Zentzu horretan ahalmen handia du hainbat eragileren artean lan ba-



Lehiberri eraikina, Apatta industrigunean; obra mailan kanpoko urbanizazioa bukatzea falta da. IGL

teratua egiteko, eta, azken finean, eskualdeko garapen integral bat sustatzen hasteko gunea izan daiteke».

Lehiberri zentroa Apatta industrigunean dago eta lan handienak bukatuta daude. Obra mailan falta den bakarra kanpoko urbanizazioa dela azaldu dute garapen agentziatik. Horretaz gain, barruko ekipamendua hornitzeko pausok ematen ari dira Tolosaldea Garatzenetik eta bere helburua udazkenean zentroa ireki eta bertan lanean hastea da.

Zentroak zazpi enpresa haztegi, bost laborategi-tailer eta hiru formakuntza areto izango ditu. Bere ardatzak, besteak beste, kudeaketan formakuntza, ekintzailetasuna, nazioartekotzea eta enpresen arteko lankidetzaz izango dira.

## Indar politikoan ikuspegiak

Lehiberri proiektuari buruz, Tolosaldeko Bilduk azaldu duenez, «orain arte instituzioetatik bultzatu izan den politika ekonomiko bereziki eraikuntzan oinarritu izan da, eraikinak edo industrialetan berak, herrien garapenerako tresna gisa erabili beharrean, bere horretan helburu bilakatuz». Lehiberriren kasua ere hor koka daitekeela dio, «proiektu sendo baten bueltan aritu beharrean, azpiegitura erraldoiek baldintzatu baitute bidea». Bultzatu beharreko politika sozioekonomikoez eskualdeko beharrei erantzun behar dietela esan du Bilduk: «Egun dugun industria ehunean dirua jarritz (zaharberritze-lanak kasu), lehen sektorea irmoki bultzatuz, hiru-garren sektoreko enpresa txikiak beharrak asetz, eta jarduerak produktibo eta sozialei begirako

egiazko berrikuntza eta ikerketak garatuz».

Diru laguntzaren aferari dagokionez, Bilduren ustez «herri edo eskualde baten norabidea ezin da eraikin baten eraikuntza lanetara mugatu, are gutxiago, kanpotik etor daitezkeen 'laguntzen' barruan baldintzatu. EAJk bere garapentzat jo zuen eraikuntza-lan horietarako diru laguntzak lortu izana eta orain gertatu dena Estatu espainiarrarekiko menpekotasun horretan sakontzearen ondorioa besterik ez da izan». Bildu gaineratu duenez, «herri honek burujabetza politikoa ez ezik, ekonomikoa ere ezinbestekoa du, hemen sortutako aberastasuna hemen banatu ahal izateko. Bitartean, orain arteko eredu sozioekonomikoarekin hautsi eta herriarrak eta herriarren beharrak ardatz izango dituen bideari ekin beharko diogu».

## Foru Aldundiak aurten 400.000 euro emateko jarrera azaldu du

## Tolosaldea Garatzenen helburua udazkenean Lehiberri zentroa irekitzea da

Bere aldetik, Tolosaldeko EAJk azaldu duenez, Espainiako Senatuko bere legebiltzarreko taldearekin harremanetan jarri zen, udalean aho batez onartutako mozioa bultzatzeko eta «Estatuak Lehiberrirekin hartutako konpromisoa betearazteko. Lorea Leanizbarrutia senataria izan da 2012ko ekainaren 20an eskaera

hau defendatzeko arduraduna». Ekimen hori «alderdiaren konpromisoarekin eta Tolosaldeko modernizazio ekonomikoarekin bat dator eta, zehazki, EAJk Lehiberri proiektuarekin hasieratik emandako pausoekin», zehaztu du alderdi jeltzaleak.

EAJk gaineratu duenez, «ezin dugu ahaztu Lehiberriko aurrekontua, 3,9 milioi eurotakoa, EAJren legebiltzarreko taldeak Madrilen bultzatutakoak direla, aurrekontuaren negoziaketan. Espainiar Gobernuak 2 milioioko ekarpena egitera konprometituen. Kopuru hauen sustapen ekonomikoa, beraz, EAJrena izan da».

Gipuzkoako Foru Aldundiak jarririko dituen 400.000 euroren inguruan, kopuru hori «Krisiaren Kontrako diru poltsakoa, 8.000.000 eurokoa», dela adierazi du EAJk, «Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJren taldeak erantsi zuena 2012ko aurrekontu foral onartzeko».

EAJ adierazi duenez, «pauso hauek guztiek adierazten dute EAJren udal taldearen inplikazioa Tolosaldeko garapen ekonomikoarekin. Jarrera honek, dudarik gabe, ekimen berriei bidea emango die; hori da gure asmoa, behintzat, eta bide horretatik jarraituko dugu».

PSE-EEK dioenez, Lehiberri proiektua «estrategikoa» da Tolosaldearentzat, eta alderdiak horrela «behin eta berri» horrela adierazi duela gaineratu du. Bi milioi euroko finantziazio hitzarmena aurreko Espainiako Gobernuarekin sinatu zela gogora ekarri du, «Cristina Garmendiarekin, hain zuzen». Lehenengo milioia «gobernu sozialistak or-

dainduta» jaso zela azaldu du PSE-EEK. «Bigarren milioia PPren gobernuak utzi du ordaindu gabe, eta hau onartezina da», esan du PSE-EEK, eta gaineratu: «Bai Tolosaldea Garatzenetik eta bai udaletik diru hori ordaintzea exijitu behar da eta beharrezkoa bada epaitegietara jo». Bestalde, Aldundiak «betidanik» parte hartu behar zuela Lehiberri proiektuan eskatu duela esan du eta «hori exijitzeko garaia» iritsi dela azaldu du.

Aralar alderdiak esan duenez, «krisi ekonomikoak eta enpleguak Tolosaldea gogor astintzen ari den honetan, ekonomia suspertzeri eta enplegua sortzeri bideratutako ekimenak ongi egingdakoak dira. Lehiberri horietako bat da eta ikuspegi horretatik babesten dugu». Aralarrek gaineratu duenez, «Lehiberri aurkeztu zenean kezka agertu genuen uste genuelako, eta uste dugulako oraindik, Tolosaldean industria enplegua sortzeko ekimen sendoak eta irizpide luzeak bideratzen saiatu behar dela eta bide horretan Lehiberri motz gelditzen dela».

Horrez gain, Aralarrek oso larritzat jo du Espainiako Gobernuak Lehiberrirentzat hitzartutako laguntza bideratu ez izana. Aralarren iritziz, «PSOEk eta PPK oso sarri aipatzen duten erakundearen arteko leialtasuna praktikazeari uko egin diote kasu honetan. Gainera, hartutako konpromisoak ez betetzeak jarduera politikoa ulertzeko modu ustel bat agerian jartzen du. Beste erakunde batzuek, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lehiberri bideragarria egiteko hartu duten jarrera eskertzekoa da bestalde».

# Berazubi estadioa eraberritzeko lanak epe laburrean hasiko dituzte

Zortzi hilabeteko iraupena izango dute lehen faseko lanek; 1,2 milioi euroko kostua izango dute

**Enerritz Maiz** Tolosa

Atzo aurkeztu zuten Tolosako Berazubi estadioa eraberritzeko duen proiektua. Lehen faseko obrak, uda ostean hasia aurreratu dituzte, eta lanek zortzi hilabeteko iraupena izango dute. Kirol gune irekia izango da, eta obra hauek, etorkizunean ere kirolari lotutako estadioa izatea ahalbideratuko dute.

Urte luzeetako proiektua ia gauzatzeaz dago. Iraila alderako eskainiko dituzte obrak eta lanean hasia espero dute. «Lehenago izan dadin saiaturako gara», adierazi zuen Ibai Iriarte alkateak. Usabal kiroldegiarekin komunean kudeatuko dute Berazubiko estadioa. «Zerbitzuak eskaini behar dizkiegu herritarrei. Osoenak eta egokienak izan behar dute, eta kontuan izan behar da eskualde buru garaia», nabarmendu zuen Iriartek.

«Gure arbasoek utzitako ondareari eutsi egin nahi diogu, eta horretara dator Berazubi eraberritzeko planteamendua», gaineratu zuen. «Herria egiteko modua da, eta guretzat, hau, gizarte gastua da. Azken finean, herritarren egunerokorako eta bizitza kalitateko aurrerapauso bat da». Herriari irekia izango da, eta «herriaren erdian dagoen kirol gunea erreferentia da. Garrantzitsua da, hirian dagoen lekuan egonda, kirol ekipamenduei eskainia izatea», esan zuen Iriartek.

Aurkezpenean, Ibai Iriarte alkatearekin eta Peio Etxabe Kirol zinegotziarekin batera, Iñaki Arratibel Tolosa CFko lehendakaria, Asier Bakaikoa Tolosa Lantzeneko teknikaria eta Pepita



Zatika banatu dute Berazubi berritzeko proiektua. HITZA

Esnaola Muñoa Fundaziokoa izan ziren.

## Eraikin estaliak izango ditu

Zahartua eta urte askoan berritu gabe egon da Berazubiko estadioa. Peio Etxabe Kirol zinegotziak funtzionala izatea nahi dutela adierazi zuen: «Erabiltzaileen beharrak asetzera da gure helburua, eta Usabal kiroldegien osagarri izatea. Eraikin estaliak sortuko ditugu lehen fasean egingo diren obrek». Besteak beste, hiru padeleko pista estali, eta gimnasia egiteko gelak izango ditu Berazubi berrituak.

Orain arteko itxura itxiari «irekiera» ematea lortu nahi dute. «Berazubi eskuragarri eta kanpotik ikusteko moduan jarri nahi dugun», gaineratu zuen Etxabek.

Jarraian, tekniko moduan hitz egin zuen Asier Bakaikoa Tolosa Lantzeneko kideak: «Lehen fasean, mendealdea, hau da, 100 metroko zuzena dagoen aldea, berrituko da». Hamailek berrituko dituzte, eta bertatik lehen kalea ikustea ahalbidetuko dute. Hauen azpian, berriz, aldagela guztiak izango dira. Eta jarraian gimnasia egiteko gelak egingo dituzte. Estaliak izateari garrantzi handia eman diote. Sarrera nagusi eta bakarra, berriz, Norbegiarren parketik izango du. Lehen faseko lanek 1,1 milioi euroko kostua izango dute, eta inguruko

gastuetan 100.000 euro gastatuko dira. Udaletik diru laguntzak lortzeko atekak jotzen jarraituko dutela nabarmendu zuten. Bigarren zati batean, ekialdeko aldea berrituko litzateke, pilotalekuaren aldea. Pista eta frontoi estalia, tenis pista, taberna, bulegoak, biltegiak, igerilekua eta urbanizazioa. Guztira, 2.700.000 milioi euroko aurrekontua du.

Iñaki Arratibelek Tolosa CFren izenean hartu zuen hitza: «Kirola herritarren artean eta, batez ere, gazteen artean bultzatzea izan dugu helburua, eta orain gure nahi gauzatzera goaz proiektu honekin». Nahiz eta instalakuntza pribatua izan, erabile- irekia izan du. «Ez genuen ulertzen erabilera pribatua izatea, eta kudeaketa komuna izango du. Egoera ekonomikora egokituz, hasierako planteamendua erresetatu da», adierazi zuen Arratibelek. Eztabaida eta borroka askoren emaitza dela ekarri zuen gogora.

Muñoa Fundazioarenak dira Berazubiko estadioaren lurrak, eta «eskerrak» eman zituen alkateak: «Zan duten prestutasunagatik eta gertutasunagatik, eta baita eskaini duten laguntzagatik ere». Beraz, 1923. urtean eraikitako estadioak, ez du etenik izango. Behin obra hauek eginda, etorkizunean ere, kirolari eskainitako esparrua izango du, Tolosak.

# Hitza Txapelketako pilota partidak, bihar

Lasa eta Ugartemendia bikotea iritsi da finalera alebinetan; hurrengo partidak Asteasu, Altzo, Albiztur eta Bidegoianen

**E. Maiz - I. Terradillos**

IX. Hitza Pilota Txapelketako finalak gero eta gertuago daude. Horren seinale, alebin mailako Lasa eta Ugartemendia bikotea finalerako sailkatu dela da. Bihar, bosgarren jardunaldiko partidak jokatu dituzte, alebinen, infantilek eta benjaminen, Asteasun, Altzo eta Albizturen.

Alebinek dagokienaz, Asteasun 19:00etan partida bakarra jokatu-

ko da: Morales-Zeberio bikotea, Iraola-Alberdiren aurka lehiatuko da. Altzoan, 18:30ean hasiko dituzte infantil mailako partidak: Arandia-Aizpitarte Altuna-Zubeldiaren aurka, eta Luzuriaga-Otaegi Zubeldia-Artolaren aurkako izango da. Benjaminen Albizturen jokatu dituzte partidak, 19:00etan: Altuna-Eratorbe Zeberio-Moralesen kontra eta Lasa-Lopetegi Esteban-Zubeldiaren aurka.

Bidegoianen, kadeteen mailako bi partida jokatu dira, uztailearen 2an, astelehenean. 19:00etan hasiko dira partidak, eta lehena Etxeberria-Mendi Labaka-Mendiaren aurka, eta bigarrena Peña-O. Aburuza Egiguren-Belokiren aurka.



Lasa eta Ugartemendia dira alebinetako lehen finalistak. HITZA

## ↓ HITZA Pilota Txapelketako emaitzak

### ALEBINAK

Olazabal-Eraso	16
Olasagasti-Zabala	8
Morales-Zeberio	16
Otaño-Elola	10
Iraola-Alberdi	16
Goikoetxea-Arruabarrena	3
Lasa-Ugartemendia	16
Elizegi-Otaegi	14
Olazabal-Eraso	15
Lasa-Ugartemendia	16

### BENJAMINAK

Altuna-Estarbe	16
Altuna-Iraeta	9
Lasa-Lopetegi	16
Aizpuru-Izagirre	7
Esteban-Zubeldia	16
Amondarain-Galartza	14
Zeberio-Morales	16
Aranalde-Zubillaga	8

### INFANTILAK

Arandia-Aizpitarte	18
Oiarbide-Murua	12
Luzuriaga-Otaegi	18
Egibar-Ezeiza	10
Altuna-Zubeldia	18
Arrate-Tormo	9
Elola-Jauregi	16
Zubeldi-Artola	18

### KADETEAK

Arrue-Irisarri	17
Zabala-Zabala	18
Irisarri-Maiz	18
Zabala-Luzuriaga	0
Egiguren-Beloki	18
Iribarren-Goikoetxea	0
Iturbe-Zabala	18
Irazustabarrena-Garín	16



*Actasuko Udala*  
**San Pedro jaiak**  
**2012**

**Ekainaren**  
**28<sup>tik</sup>**  
**uztailaren 1era**

# Lan munduan euskararen normalizazioa bultzatuz

Euskararen inguruan egindako lanagatik eskualdeko hainbat enpresa eredugarritzat jo dituzte

**Asier Imaz**

Euskararen normalizazioa lan munduan bultzatzeko, Galtzaundi euskara taldeko kideekin batera, prentsaurrekoa eman zuten Anoetako udaletxean.

Peio Estanga Anoetako alkateak bere herriko lantegien lana azpimarratu nahi izan zuen, horretarako, hauen izenak plazaratu zituen: Recambios Ibarra, Mapi grabatuak, Anoeta karrozeria, Opel Giauto, Goya okelak eta Zuriarrain iturgintza. Irurako udal ordezkariak, gauza bera egin zuen bere herriko lantegiekin, hau da, komunikabideen aurrean zerrendatu zituen: Vicente errotoleak, Tolosa marmolak, Mikelan, Ipar Auto tailerrak, Baso-lur, Alonso burdin eta metalak eta San Miguel garraioak 1961.

Bi herrietako enpresa hauek egindako ahalegina, euskararen normalizazioan, «eredugarritzat» jo zuten udal ordezkari eta Galtzaundiko kideek. Hauen esanetan, lantegi hauek, besteak beste, ondorengo konpromisoak hartu dituzte: ordainagiriaren eta aurrekontuen txantiloia euskaraz jartzea; bisita txartelak, zigilua, gutunak eta ordutegia euskaraz jartzea; administrazioa daramatenekiko idatzizko zein ahozko harremanak euskaraz izan daitezken bermatzea; errotulu nagusia euskaraz jartzea; telefono erantzungailua euskaraz jartzea; webgunea euskaraz jartzea; eta lehen hitza euskaraz egitea.

## ↓ Euskara munduan, lantegi («eredugarriak»)

■ **Enpresek hartutako konpromisoak:** Ageriko idatzi eta oharriak euskaraz jartzea; ordainagiriaren eta aurrekontuen txantiloia euskaraz jartzea; bisita txartelak, zigilua, gutunak eta ordutegia euskaraz jartzea; administrazioa daramatenekiko idatzizko zein ahozko harremanak euskaraz izan daitezken bermatzea; errotulu nagusia euskaraz jartzea; telefono erantzungailua euskaraz jartzea; webgunea euskaraz jartzea; eta lehen hitza euskaraz egitea.

### ANOETA

■ **Enpresak:** Recambios Ibarra, Mapi grabatuak, Anoeta karrozeria, Opel Giauto, Goya okelak eta Zuriarrain iturgintza.

### IRURA

■ **Enpresak:** Vicente errotoleak, Tolosa marmolak, Mikelan, Ipar Auto tailerrak, Baso-lur, Alonso burdin eta metalak eta San Miguel garraioak 1961.



Galtzaundi euskara taldeko ordezkariak, Anoeta eta Irurako udal ordezkari eta enpresa arduradunekin. A. IMAZ

tuen: Recambios Ibarra, Mapi grabatuak, Anoeta karrozeria, Opel Giauto, Goya okelak eta Zuriarrain iturgintza. Irurako udal ordezkariak, gauza bera egin zuen bere herriko lantegiekin, hau da, komunikabideen aurrean zerrendatu zituen: Vicente errotoleak, Tolosa marmolak, Mikelan, Ipar Auto tailerrak, Baso-lur, Alonso burdin eta metalak eta San Miguel garraioak 1961.

Bi herrietako enpresa hauek egindako ahalegina, euskararen normalizazioan, «eredugarritzat» jo zuten udal ordezkari eta Galtzaundiko kideek. Hauen esanetan, lantegi hauek, besteak beste, ondorengo konpromisoak hartu dituzte: ordainagiriaren eta aurrekontuen txantiloia euskaraz jartzea; bisita txartelak, zigilua, gutunak eta ordutegia euskaraz jartzea; administrazioa daramatenekiko idatzizko zein

ahozko harremanak euskaraz izan daitezken bermatzea; eta webgunea euskaraz jartzea. Amaia Doyague Galtzaundi euskara taldeko kidearen esanetan, orain arte bezala, Galtzaundik urte guztian zehar enpresen jarraipena egiten jarraituko du.

### 2012ko erronkak

Amaia Doyagueren esanetan, aurtengo urtean hiru alorretan eragitea gustatuko litzaioke Galtzaundi euskara taldeari. Horretarako eta, beti ere, lan munduan euskararen normalizazioa bultzatzeko, ondorengo hiru erronka aipatu zituen: paisaia linguistikoak; hitz teknikoaren erabilera; eta barne eta kanpo harremanak. Alor hauekin batera, bezeroekin harreman zuzena duten langilearen hizkuntza gaitasuna jadanik aztertu dutela esan zuen Galtzaundiko ordezkariak.

Guzti honen atzean, kualitatiboki eragitearen helburua aurkitzen dela esan zuen Amaia Doyaguek: «Euskarazko kalitate ziurtagiriak interesa azaldu duten enpresei aipatu ziurtagiriak lortzeko bidea azaltzeaz gain, ziurtagiriak ematen dituzten entitateetako ordezkariak bilkura antolatuko du Galtzaundik».

Ideiak eta asmoak praktikan jartzerako orduan, eraginkortasuna helburu, kasuan kasuko azterketa egitea izan da aurtengo proposamena. Iaz egindako lanetaren ondorioak Galtzaundi euskara taldeko eta bi udaletako ordezkarien artean aztertzea, eta zein enpresetara jo erabakitzea izan da lehen lana.

Azkenik, prentsaurrekoan agerrialdia egin duten guztiek, euskararen normalizazioa lantzen jarraitzeko konpromisoa berretsi dute.

## → Laburrak

### Udaleku irekietako haurren gurasoekin bilera

**ZIZURKIL** Oporretan euskaraz udaleku irekietan parte hartzen duten haurren gurasoekin bilera egingo du udalak. Bertan, zenbait gurasok planteatutako proposamen edo eskarien bideragarritasuna aztertu nahi da. Bilera bihar, hilak 27, izango da, 18:00etan Atxulondo kultur etxean.

### Pilota eta dantza eskoletako izen ematea

**ANOETA** Anoetako dantza eta pilota eskoletan izena emateko epea ekainaren 29an amaituko da. Horretarako, udaletxera edo liburutegira joan behar da, baita informazio gehiago lortzeko ere. Pilota eskolan izena eman nahi dutenek, 65 euroko matrikula ordaindu beharko dute.

Antolatzaileak: Ordizia Rugby Elkarte Laguntzaileak: Ordiziako Udala

# Antzerkia eta afaria, sexu askatasuna aldarrikatzeko

Leitzako zinean 'Ogiyik karri etzun semia' antzezlanaren izango da, 20:00etan, eta ondoren, Torrean, afaria

**Iñigo Terradillos** Leitza

Pertsona talde batek mobilizazioak hasi zituen New Yorken, 1969. urteko ekainaren 28an, euren eskubide zibilak lortzeko helburuarekin. Orduetik, gaurko eguna Sexu Askatasunaren Aldekoa da mundu zabalean, eta gay, lesbiana, transexuala edo bisexuala izatearen harrotasuna aldarrikatzen da. Bada, Leitzan esaterako, bertako Sexu Askatasunaren Aldeko taldeak antzerkia eta afaria antolatatu ditu gaurko, herritarrek sentsibilizatu eta elkartzeko asmoarekin.

Batetik, Txirene antzerkiaren *Ogiyik karri etzun semia* antzezlanaren ikusteak aukera izango da, doan, Leitzako zinean, 20:00etan. Edurne Agirrezabalarenak dira antzezlaneko testuak, eta bera da aktorea. Ama baten eta unibertsitatean ikasten ari den bere semearen arteko harremana kontatzen da, txikitari



Sexu askapenari buruzko mahai ingurua egin zuten pasa den urtean. HITZA

emandako hezkuntza eta egungo egoeraren artean dagoen aldea adieraziz.

Bestetik, antzerkiaren ondoren, 21:30ean hasita, afaria izango da, Torrean.

## Esakubideak aldarrikatuz

Leitzako Sexu Askatasunaren Aldeko taldeak pertsona orok bere sexualitatea askatasunez bizitzeko eskubidea duela aldarrikatu nahi du egun honetan ekimen hauen bidez, eta baita azken osoko bilkuran aurkeztu zuen eta

aho batez onartu zen moziorekin bitartez ere. Mozioak dioenez, bereizkeria egoerak alboratu eta sexu identitate aniztasuna errespetatu eta eskubideak aitortu eta bermatzea ezinbestekoa da. Halaber, moziorekin onarpenarekin, Leitzako Udalak bat egin du aldarrikapenekin eta ekimenetan parte hartuko du, antolakuntzan babestarekin batera. Mozioak gehitzen duenez, eskubideen benetako bermea lortze aldera, oraindik lan handia dago egiteko, herrian zein erakundeetan.

**Iztzar Saldias, Saioa Iraola eta Mikel Astibia** • Leitzako Sexu Askatasunaren Aldeko taldeko kideak

# «Gaurkoa gizarteratu eta elkartzeko eguna da»

**I. Terradillos** Leitza

Bigarren urtez ekitaldiak antolatatu ditu Leitzako Sexu Askatasunaren Aldeko taldeak, gaurko egunaren harira. Borroka eta aldarrikapen eguna dela diote, eta herria gaiaren inguruan sentsibilizatu nahi dute.

**Hainbat ekitaldi antolatatu dituzue gaurko. Zein da ekitaldi horien xedea?**

Iazko zein aurtengo ekimenek helburu desberdinak dituzte, beti ere, kontuan hartuta, herrian ez dela egin sexu askatasunaren eta sexu identitate aniztasunaren inguruko lanketarik. Horrela, batetik, gizarteratzea, herrian gaiaren lanketa, bisibilizazioa, lesbianon-gay-transexualon egoera ezagutaraztea... bultzatu nahi ditugu eta, bestetik, elkartzeko, ospatzea, eta noski, borrokarako eta aldarrikapenerako egun bat dela gure agendatan ere pixkana lantzea.

**Ze helburu du Sexu Askatasunaren**

## Aldeko Egunak?

Borroka eta aldarrikapen eguna da gaurkoa. Heteroarauaren erretzetan kokatzen gaituztenon aldarria entzunazteko eguna da.

**Noiz sortu zen Leitzako Sexu Askatasunaren Aldeko taldea?**

28aren testuinguruan, nahiz eta nahi duela gure lehenez, eta aurtengo egun gara ekainaren 28a antolatzeke.

**Zenbat kide osatzen dute?**

Momentuz, 5-6 kide gaude, nahiz eta, bueltan bueltan, elkarlanerako jendea badagoen.

**Zer ekimen eman dituzue aurrera?**

Iaz eta aurtengo hainbat ekimen egin ditugu, beti ere, ekainaren 28aren testuinguruan, nahiz eta gure helburua baden pixkana gehiago zabaltzea. Mahai ingurua, iritzi artikulak, kartelak, Leitzako Udalean mozia sartu dugu, antzerkia, irratian zein eskualdeko komunikabideetan gure mezua eta aldarriak zabaldu ditugu...

## Zein helbururekin sortu zen?

Helburu nagusia gure artean elkartu eta herrian gizarteratzea lana egitea da, ekimenen bitartez, sexualitatearen gaia zerbait pertsonala, norberarena izateaz haratago politikoa ere badela adieraztea, eraldaketa sozialaren bidean sexualitatea askatasunez bizitzeko aurrerapausoak ematen joan behar dugula herrian ere lantzea, gaiaz formatzea, herritarrei ateak ireki eta parte hartzea bultzatzea, ekainaren 28a zein urte osoan borroka ildo bat dela azpimarratzea...

**Sortu zenetik nolako bilakaera izan du? Zein da zuen balantzea?**

Oso balantze positiboa egiten dugu. Iaz herritar mordoxka bildu ginen hitzaldian, afarian ere eta pozgarria iruditzen zaigu. Herrian harrera ona izan du gaiaren lanketak, eta aurrera begira indarra ematen du horrek. Aurtengo ekimenetarako ere gonbita luza-tu nahiko genuke.

# Aizkolari Txapelaldunaren Ligako lehen garaipena lortu du Unai Otañok

Ibarrako aizkolariak Iñaki Azurmendi hartu du mendean, Hernaniko pilotalekuan

**A. Imaz** Ibarra

Unai Otaño aizkolari ibartarrak sendo ekin dio 2012ko Aizkolari Txapelaldunaren Ligari. Lehen lehia atzo jokatu zuen Otañok, San Joan jaien babesean, Hernanin.

Bero handia egiten zuen 12:30ean, baino aizkora jaialdiak ez zuten etenik izan.

Ibartarraren aurkaria Iñaki Azurmendi izan zen, hau da, 2011ko Euskal Herriko txapeladuna. Bi aizkolari bikain hauen arteko lehia, azkenean, ibartarraren aldera erori zen.

2012ko binakako Urrezko Aizkolariaren txapeladunak, Unai Otañok, garaipen honekin ligako lehen puntuak eskuratu zituen, iragan astean, Floren Nazabalek egin zuen bezala.

# Jon Jaunarenaren final handia etzi izango da

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxeak sanferminetako torneoan jokatu dute uztailearen 7tik aurrera

**A. Imaz** Leitza

Jon Jaunarenak eskuz banakako bigarren mailako pilota txapelketaren finala jokatu du etzi, hilaren 30ean, Iruñeko Labrit pilota-

lekuan. Leitzarraren aurkaria Ezkurdia izango da. Maila altuko bi pilotari izaki, ikusmin handia sortu du final honek, etorkizuneko puntan ibiliko baitira ziurrenik bai Jaunarena eta baita Ezkurdia ere. Pilota jaialdia 16:30ean hasiko da.

Bestalde, San Fermin Txapelketan Oinatz Bengoetxeak Beginorekin osatu du bikotea, eta Abel Barriolak Titin III. arekin. Iruñeko pilota festa uztailearen 7an hasiko da.

## Irudia



# ALURR TALDEA LEKEITON

Alurr dantza taldeak Lekeitioko (Bizkaia) Euskal Ezkontzan parte hartu zuen iragan igandean. Hain zuzen ere, seigarren urtez eskaini dute bertan ibartarrek dantza saioa. Aurtengoan, Ibarako Errota taldea izan da Altzoko eta Zaldibiako dantzariekin batera. Alurreko arduradunek azaldutakoaren arabera, «saio benetan ikusgarria izan zen, eta jende gerturatu zen emanaldiaz gozatzera». Laster itzuliko da Alurr taldea Lekeitiara, Irailaren 8an, hain zuzen ere; herriko festetan, *Izanan dirau*, 1512 ikuskizuna aurkeztuko du. HITZA

✉ Gutuna

**Atez atekorik ez!  
Inposaketarik ez!**

«Demokrazia ordezkatzailerik demokrazia parte hartzailea jauzi egitea da gobernu honen helburua... demokrazia eredu berriek herritarren parte hartzea ezinbesteko dute...». Hitzok joan den ekainaren 12ko HITZAN irakurri genituen. Udal gobernuaren balantzeaz ari zen Ibai Iriarte eta noski, ongi egindakoaz. Baina lotsa behar da parte hartzeaz hitz egin eta gero, atez ateko sistema ezarriko dela diotenean. Noski, ez omen da galdeketa egin behar honen inguruan Hasier de los Rios-en aburuz, ez ei da galdetu behar kutsatu nahi den ala ez (Aitu! aldizkariko azken alean).

Zaborra zero/demokrazia zero. Horrelaxe gauzak. Zuen ereduak porrota dakar, demokrazia hitza eta parte hartzearena darabilzue, baina ez bata, ez bestea. Aurrekoek ez dutela galdeketa egin, ez dutela parte hartzerik bultzatu... Eta hori guztia hala bada, zertan ari zarete zuek? Hain gaizki egin den hori errepikatzen? Herriaren hitza aintzat hartzen duzuela diozue, baina nola? Galdetu gabe? Zer esaten duen entzun gabe? Demokrazia doktoregoa duzue, nonbait. Nola ulertu herriak nahi ez duena inposatzearena? Herriak ez badu nahi, ez du inposaketarik zertan jasan. Hala, desobediencia-aren bidea baino ez diozue utziko.

Garitanok berak ere esan zuen ekainaren 13an atez atekoarena ez zela diputatu baten apeta, gobernuaren lana baizik, eta noski, ez dela atzerabiderik, alegia, atez atekoa ezarriko dela. Noski, gobernuan dagoenak erabaki du, eta hala bedi. Nik diodana egingo da eta kitto, nahiz eta bai udal-letxean bai batzar nagusietan gutxiengoan egon. Alegia, inposaketa. Hori al da demokrazia?

Baina noski, peajeak ordainaraztearen aurka zeudenez, orain ezberdin ikusten dute, eta hainbeste kritikatu duten polizia eredu «on» bat jarriko dute herritar zintzoak garen ala ez ikusteko, eta zintzoa ez bazara: isuna. Hauek guztiak noski, neurri ez-kertiar eta sozialistak dira. Nahikoa da!

Alarma zuek piztu duzue, ez beste inork, inposaketa zuek ezarri nahi duzue, totalitarismoa. Hain ona bada sistema, hain mesedegarria eta herriaren onurako, galde egin iezaiozue herriari. Horixe da hainbestetan darabilzuen: parte hartzea. Zeren beldur zarete? Herriaren beldur? Ez du inork kutsatzeko eskubiderik, ez, baina ezta ezer inposatze-ekorik ere. Herriak badaki zer nahi duen eta zer ez: Atez atekorik ez, inposaketarik ez!

■ J.M. Urkiola Lasa + 33 sinadura.

# Motorren eta motozaleen hiriburu bilakatuko da Ibarra, asteburuan

Ibarrako Langostino Moto kultur elkarteak X. Moto Festa antolatuta, hamargarren urteko Moto Festa egingo dute, eta bai etzi, bai eta igandean ere, motorrekin loturiko ikuskizunik ez da faltako.

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Motozaleek hartuko dute Ibarra asteburuan. Langostino Moto kultur elkarteak antolatuta, hamargarren urteko Moto Festa egingo dute, eta bai etzi, bai eta igandean ere, motorrekin loturiko ikuskizunik ez da faltako.

Etzikoari dagokionez, arratsaldean gaztetxoentzako jolasak izango dira, eta gerturatzan den oro harri eta zur uzteko motoaren gainean akrobaziak egingo dituzte. Afariaren ostean jarraituko du festak rock kontzertuarekin, ohiko stripteasearekin eta DJaren musikarekin.

Igandean, berriz, bira egin ondoren, bazkarian elkartuko dira guztiak, eta aurreko eguneko lehiaketan sari banaketak egingo dituzte.

## ↓ Egitaraua

### EKAINAK 30, LARUNBATA

- 14:00. Festaren hasiera.
- 17:30. Jokoa motorrekin.
- 19:30. Andre Colomborekin, moto akrobaziak (stuntman).
- 21:00. Afaria.
- 23:30. Zuzien erakustaldia.
- 00:00. Rock jaialdia.
- 02:00. Striptease mixtoa.
- 03:00. DJ Andoni.

### UZTAILAK 1, IGANDEA

- 09:00. Gosaria.
- 10:30. Motorrekin bira.
- 13:00. Ibarra itzulera.
- 14:00. Bazkaria, sari banaketa eta festaren amaiera.



Motorren erakustaldi bikaina izango da, urtero legez, asteburuan Ibarra. M. UGARTEMENDIA

**Jose Ramon Mujika** • Langostino Moto kultur elkarteak kidea

## «Poztekoa da elkarteari esker kuadrillak egin direla ikustea»

**I. Terradillos** Ibarra

Langostino elkarteak hamargarren urteko Moto Festa. Elkarteko kideak gustura daude hamar urteek eman dutenarekin. **Urte borobila da aurten. Zer berezitasun du festak?** Ekitaldiei dagokionez, zuziena iaz hasi ginen egiten, eta aurten ere izango da. Gainerakoan, urterokoak errepikatzen dira. 10. urte denez, kartel eta elastiko bereziak egin ditugu.

### Zenbat jendek hartuko du parte?

Dagoeneko izena eman dutenen kopurua ikusita, 200 inguru izango dira afaltzen etzi, eta 180-220 bitarte igandean. Normalean, igandean izaten da jende gehien.

**Motoek era jakin batekoak izan behar al dute?**

Ez. Era guztiako motoak onartzen dira.

**Nongotarrak dira pare hartzailerik gehienak?**

Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Iparraldekoak. Horiek %75-80 izaten dira. Gainerakoak Herrialde Katalanetik, Madrildik edota Espainiako beste edozein puntutakoak. Munduko edozein txokotako jendea izaten dugu. Behin Australiatik etorritako bat izan genuen, baina ez espreski Ibarra etorrita, baizik eta Europar zeharreko bidaia baliatuta. Gainera, urrutien datorrenentzat saria ere izaten dugu, esfortzua eskertzeko.

**Eta errepikatzaileak izaten al dira?**

%75 errepikatzailea da. Esaterako, gu beraiek antolaturiko festetara joaten gara, eta beraiek gurea dotoz. Urteak urtera jende berria ere sumatzen dugu. Hilero, azken igandero ittearak antolatzen ditugu, eta hori izan ohi da jende berria animatzeko bide bat.

**Zein da hamar urteen balantzea?**

Orain Moto Festarekin gaudela eta, urteak urtera geroz eta zailago egiten zaigu, erakundeetatik laguntza jaitsi delako, baina ostalarri eta merkatarien eta norbanakoen laguntza eskertu behar dugu. Gainerakoan, oso gustura gaude, taldea handitu delako. Poztekoa da elkarteari esker kuadrillak egin direla ikustea.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



≈ 24°  
≈ 16°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	23°
HOTZENA	13°


**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitzua, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Ollarrea, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Iurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

**agurrak**

**Irudia** Tolosa



**ODRIOZOLA GOGOAN**

Herrira mugimenduak hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosako Pello Odriozola euskal presoaren askatasuna eskatzeko. Herenegun arratsaldean elkarretaratze jendetsua egin zuten Plaza Zaharrean, eta gaur, 19:30ean, kultur etxean, biziarteko zigorraren inguruko hitzaldia entzun ahal izango da. Era berean, larunbatean Zuerako espetxera joango dira herritarak, eta 19:30ean, manifestazioa egingo dute Trianguloatik abiatuta. «Pellok kalean behar zuten 2008ko uztailetik, baina Parot Doktrina aplikatu eta bere askatasuna 10 urtez atzeratu zuten», salatu dute. I. URKIZU

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Zizurkil.** Adin txikiko zentroaren inguruko bilera, gaur, 18:00etan, pleno aretoan. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ere izango dira bertan.
- **Tolosa.** Orbelako Blues Gauak ekimenaren barruan,

gaur, Bibluesen (Iker Piris eta Alvaro Fernandez) kontzertua, 22:30ean, Orbela tabernan.

- **Asteasu.** San Pedro jaiak hasierako haurren txupinazioa, eta ondoren haurren krosa eta marrazki lehiaketa; 12:00etatik 14:00etara, haur parkea frontoian; 14:00etan, haurren arte-

ko bazkaria, plazan; 15:00etatik 17:30era, haur parkea frontoian; 18:00etan, zezen txiki eta poneyak; 18:00etan, Asteasuko Gazte Asanbladak antolatuta Asteasuko Frontenis Txapelketaren banakako finala; 19:00etan, Aitzondo Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Asteasuko Pala Txapelketaren finala;

20:30ean, Sorginaren jaitziera (txupinazioa Nazioarteko Emakumeen Eguna ospatzeko bul-tzada eman zuten Asteasuko taldeak botako du) eta ondoren, kalejira; 22:30ean, bertso saioa, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Zarallus eta Jon Maiarekin; eta ondoren, Gugaz taldearen kontzertua.



**harpidedun izateak badu saria**

**zozketa**

**1 Aisia Orio Hotela**  
**Bi laguntzako sasoiari jartzeko zirkuitua eta bazkaria**



Zatoz uda honetan gure terraza ikusgarriez gozatzera! Uztailak leian irekitzen degu. Abakando-arroz menua eta txuleta menua 18 eurotik aurrera. Plater konbinatuak, anoak, pintxoak, kopak, eta abar. Dena terrazan zerbitzatzen dugu eta prezioak krisiaren kontrakoak!

Hondartza bidea, 1 - Orio  
Tel.: 943-89 44 40  
www.aisiahoteles.com/orio

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

**2 Mahala sorta**  
**Bi sorta**



Mahala Berri baserria  
Leaburu  
Tel.: 943-67 07 24


Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

**3 Txindokiko itzala**  
**Hiru laguntzat bina sarrera**



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

**4 Donostiako Aquariuma**  
**Bi laguntzat bina sarrera**



www.aquariumss.com  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaitzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.